

Saioaren barne mundua

SAIOAREN AHOTSAK, bere abesteko moduak erraiak mugiarazten dizkit, oilo-ipurdia jarri, eta bihotza ukitzen dit. Oso bereziak eta hunkigarriak dira bere kantuen bitartez sortzen dituen giroak.

Leun abesten du gehienetan, baina beste batzuetan ez hainbeste. Bere aieneak entzuten ahal dira, bere samina sentitu, eta bere arima urraturik dagoe-la sumatzen ahal da.

Saioa Garin, Legorretako (Gipuzkoa) bakarlaria, folk-rock kantari bat baino gehiago da. Estilo horien aireak bere doinuetan sumatzen ahal dira, baina bere kantuak hain erraz sailkatzea oso zaila egiten zait, Saioak estilo propioa baitauka.

Diskoz disko urratsak aurrera egiten ditu. Ñabar-dura, xehetasun, ukitu eta apaindura desberdinak aurkitzen ditu bere kantuak janzteko. *Natura* lanean hori guztia ederki egin du, eta oso disko ona osatu du, borobila.

Natura-n, 11 kantu berri ditugu gozagai. Kantu bakoitza hasi ahala, bere ahotsak, gitarraren akordeek edo gainerako musika tresnen notek berehala harrapatzen gaituzte, eta gure arreta osoa bereganatzen dute.

11 istorio, 11 bizipen daude diskoan. Doinu edo giro batzuk oso intimoak dira, beste batzuk alaiagoak —melodia polit sorta bat entzun daiteke diskoan—, baina denek Saioaren barne mundura eramaten gaituzte.

Desoreka lehenengo kantua oso polita da, eta bere sentipen eta kezken berri ematen digu jadanik. *Higadura* ere ederra da, eta *Unean uneko kantuak* kutsu alaia dauka. Gainerakoak lasaiagoak dira, oro har.

Besteak beste, *Dar-dar, bor-bor* abestian elektronikoaren ukituak entzuten ditugu, eta *Natura* kantuko koruetako ahotsak aipagarriak dira.

Natura. Saioa
Moonplace, 2013

Kantuak grabatzeko garaian, Joseba Irazokiren lan-guntza estimatzekoa izan da. Gitarra akustikoa, 12 sokako gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, banjoa, lap steel-a, Q Chord-a jo, eta koruak egiteaz gain, bera izan baita ekoizlea. Lan ederra egin du, eta Saioari oso ongi lagundu dio kantuak garatzen eta janzten. Josebak, eta grabazioan parte hartu duten gainerako musikariek ere, ederki ulertu dute Saioaren kantuen mamia, eta kantu bakoitzak eskatzen zietena egin dute.

Saioak berak abestu, eta gitarra akustikoa eta pianoa jo du grabazioan. Diskoan parte hartu duten gainerako musikariak hauek dira: Felix Buff (bateria eta perkusioak), Jaime Nieto (baxua), Txus Aranburu (pianoa, Hammond organoa, Wurlitzer piano elektrikoa eta akordeoia), Igor Telletxea (tronboia), Mikel Xedh (elektronika ukituak), Iñigo Irazoki (grabazioa eta nahasketak) eta Jonan Ordorika (masterizazioa).

Natura ez ezik, Saioak beste bi disko ere baditu kalean: *Matrioska heart* (2008) eta *Particular land* (2007). Denak Moonpalace Records zigiluarekin. Ez da harritzekoa, Moonpalaceko Juanrak mimatu egiten baitu, eta diskoak atsegin handiz osatzen eta plazaratzen baitizkio. Juanra bera arduratzen da lanetako aurkezpen, diseinu eta arte-lanaz, eta bere zigiluko diskoetan ohikoa den bezala, *Natura* gustu handiz egin du, eta oso txukun eta dotore gelditu da. ■

Joxi Ubeda



Musika eta errebolta feminista

ZARAUZKO Putzuzulon bi eguneko matraka antolatu dute punk-rock eszena eta feminismoa uztartuta. Ekinmen honen ardatzetako bat *Emakumeon papera musikan* mahai-ingurua izan-go da (maiatzaren 18an, 19:00etan). Galdera bati erantzuten saiatuko dira nagusiki: Punk eta hardcore bezalako musika mugimenduek, definizioz hain transgresore izanik, zergatik ez dute

genero bereizketa gainditu? Zein da emakumearen rola eszena horretan?

Mahai-inguruaz gain, proiektzioak, umeentzako eta emakumeentzako Jam Sesio bana, kontzertua (Conejillas Vill, Shockasalto eta Pottors ta Klito) eta Dj Korta y Pegaren saioa antolatu dituzte. ■

G.U.G.



MEFSST!
Musikaerrebolta feminista

MAIATZAK 17 ostirala

19h PROIEKZIOAK
From the back of the room (Riot Grrrl)
SEX & POP (musika eta Pop-a)
*pilotaketa

MAIATZAK 18 larunbata

Jam Sesioa
11h umeentzako
16h neskenzako
instrumentuak gaituzten giroa

18h Mahai Inguru-etzabaldia
"EMAKUMEON PAPER MUSIKAN"
Zergatik musika transgresore?
Zein rola du musika feminista?
Zer da musika transgresore?
Zer da musika feminista?
Zer da musika transgresore?

22h KONTZERTUAK
Conejillas Vill
Shockasalto
Pottors ta Klito
4€

Gaualdean dj korta y pega

PUTZUZULO GAZTETXEA
bikaria kalea 36, Zarautza

pbum